

Memoria gorde,
oraina bizi,
etorkizuna eraiki,
izan Kronikalari!



■ FUTBOLA

Hernanik 2-1 irabazi du etxean

Hernaniko Euskal Ligako taldeak garaipen garrantzitsua lortu zuen atzo Zubipen 2-1 Bizkerreri irabazi eta gero. Lehenengo zatian kanpokoak izan ziren nagusi jokoan, baina Hernanik bere aukerak baliatu zituen 2garren zatian. ■

■ ERRUGBIA

Hernanik komeriak Cisnerosen kontra

6-22 galdu dute Landaren denboraldiko lehenengo partiduan zaleen aurrean. Madrildarrak hobeak izan dira arlo gehienetan eta merezimendu osoz eraman zituzten lau puntuak Hernanitik.

HERNANIK ezin izan zuen denboraldiko lehenengo garaipena lortu Landaren. Zaleen aurrean aurreneko partida jokatu zuen eta 6-22 irabazi zion, merezimendu osoz, Complutense Cisnerosek. Partidu borrokatua eta lehiatua izan zen, baina arlo ia gehienetan zerbait hobeak izan ziren madrildarrak.

Lehenengo zatia 3-8 amaitu zen eta bigarrean 6-8 hurbildu ziren, baina Cisnerosek ederki baliatu zuen Mikel Perezen hamar minutuko kanporatzea bi entsegu lortu eta markagailua 6-22 erabakitzeke. Porrot gogorra da Hernanirentzat Complutense Cisneros, printzipioz, aurkari zuzena baita. Gainera punturik ez zen lortu. ■



Cisneroseko aurrelariak min haundia egin zuten jokoan.

■ KIROLDEGIA

Eskola kiroleko begirale izateko

Hernaniko eskola kirolerako begiralea izan nahi izanez gero izena eman daiteke, ostegunera arte, Elizatxo, Langile eta Urumea ikastetxeen bulegoetan. Eskabidea eta informazioa lor daiteke <http://kirola.hernani.eus/eu/hasiera> web orrian edo aipatutako bulegoetan. ■

■ KANIKA TALDEA

Hilaren 30era arte, izenematea

Ikasturte berriarekin batera, Kaniburuak ekimena jarriko du martxan, berriro ere, Kanika Aisialdi Taldeak. Arratsaldeko 16:30etatik 19:00etara egingo dituzte ekintzak, aurreneko hiruhilekoan, ondorengo egunetan: urriak 6 eta 20; azaroak 3 eta 17; eta abenduak 1 eta 15. Parte-hartzeko, hilaren 30era arte izango da aukera izena emateko. ■

■ ORAIN HERNANI PRENTSA OHARRA

«Zerbaitek gaizki usaintzen du Hernanin» OHren arabera

Orain Hernanik adierazi du: «Hernanik kutsadura maila altua jasaten du airean eta horri aurre egiteko astearteko udalbatzan mozioa aurkeztuko dugu ikerketa bat abian jarri dezan Udalak eta emaitzen arabera soluzio bideak jartzeko».

ORAIN Hernanik prentsa oharra argitaratu du. Bertan Hernaniko aire kutsadura maila altua eta horren inguruan aurkeztuko duen mozioa ezaugarazi ditu. «Duela asko, Hernaniko udaletxean enpresa bat kontratatu zen parte-hartze prozesu bat aurrera eramateko *Noa guaz?* izenburuarekin. Prozesu honen funtsa parte hartzen zuten hernaliarrek 10 urtetan herria nola imajinatzen duten pentsatzea zen, honela herri ideal horretara iristeko zer aldatu

beharko litzatekeen aztertuko zuten».

OHk uste du herri hobe izateko egunero joan behar dela gauzak egiten, «iragana-rekin amesten baina orainaldia kontuan hartzen. Eta Hernanin errealtatea da usaintasun kutsadura indize altua dagoela. Orain dela urtebete Hernaniko Udaletxeko Ingurugiroko zinegotziak agindutako ikerketaren arabera, Hernaniko aireak kutsadura indize altua jasaten du, usainari dagokionez».

«Ikerketak izandako emaitzak analisisien eraginpean jarri beharko lirateke, beharrezkoak diren interbenzioak egiteko. Analisi hori ez zen egin» dio Orain Hernanik.

Airearen kalitatearen konpetentzia osoa Eusko Jaurlaritzak du OHren arabera, «baina Udala da herritarren osasun eta ongizatearen ardura duena. Horregatik gure galdarak dira: Gobernu taldeak ez al du Hernaniko airea jasaten? Zergatik ez zaio lehenbailehen arazo honi aurre egiten

aurrera joan baino lehen? Zergatik ez zaie Eusko Jaurlaritzari eta produktu toxikoak ekoizten dituzten enpresei eskatzen behar diren neurriak hartzea honekin bukatzeko edo gutxienez, gutxitzeko?»

OHk Gobernu Taldearen hitzak gogorazten ditu. «Hernanik gaizki usaintzea ez du osasunarentzat kaltegarria dela esan nahi. Baliteke arrazoi izatea, baina ez dakigu ziurtasun osoz, ikerketak eman zituen emaitzak aztertzen ez diren bitartean».

Horregatik, Orain Hernanik asteartean izango den udalbatzan mozioa aurkeztuko du. «Gure osasunak kezkatzen gaitu, hernaliar guztionak ere bai, guretzat nahi ez duguna ez dugu inorrenetzat nahi. Amaitzeko, 10 urte barru kutsadura gabeko Hernani imajinatuko dugu. Bide luzea dago aurretik, baina orain lanean hasi gaitezke. Horregatik lau puntuko mozioa aurkeztuko du usaintasun kutsaduraren inguruan ikerketa, emaitzak eta soluzio bidea jartzeko. ■

Aspaldiko!

18/19 ikasturtea

Astelehenean, irailak 24, hasiko dugu ikasturtea

- Astean 2 edo 4 egun
Talde batzuetan oraindik badago lekua
Anima zaituz
- Auto-ikaskuntza
Jarri gurekin harremanetan
- Diru-laguntza handiak

HERNANIKO Udal Euskaletgia
Kalebetea 41 | 48100 Hernani (Gipuzkoa)
Tel. 943 331 896
euskalegia@hernani.eus

TAILERAK ANDREKALE 2AN

ASTELEHENETAN:
Marrasketa, pintura eta sormena
9-12 urtekoentzat 18:15-19:30
OSTEGUNETAN: Komikia
12 urtetik gorako guztientzat
17:00-19:00

INFORMAZIO eta IZEN EMATEA: Axpi
aspikoaxpi@hotmail.com / 652702521

Garayar autobusak

Sorgintza auzoa, Hernani (Gipuzkoa)
Tel. 943 55 65 58 Fax: 943 33 12 08
mgarayan@autobusgarayar.es

Zerbitzu diskrezionalak (Eskolarrak)

Autobus zerbitzuak Linea erregularak

• Hernani • Donostia
• Aiete • Urdeta • Andoain

☎ **TAXIAK:** 943 550093 **UDALTZAINGOA:** 943 248900 **DYA:** 943 464622 **AUTOBUSAK:** Garayar: 943 556658, Areizaga: 943 452708, Korreoa Goizueta-Hernani: 948 514037 **ANBULATORIOA:** 943 006666 - 943 203020 **JOKALARI / ALKOHOLIKO ANONIMOAK:** 943 331103 **Egunez:** **TENA** ASTIGARRAGA Nagusia, 16 **943 543718 / Gaeuz:** **Castilla** Urbietan, 7 (Hernani) **943 552941**

Argitaratzailea

Laguntzaileak



EGURALDIA



GAUR

Goizeko lehen orduetan laino hondarrak izango dira, baina goizak aurera egin ahala urdinguneak nagusituko dira. Arratsaldean giro eguzkitsua gailenduko da. **Min.16° / Max.26°**



BIHAR

Eguraldia goitik behera aldatuko da. Euria egingo du eta goizeko zenbait momentutan mardul egin dezake. Arratsaldean atertzera egingo du. **Min.15° / Max.20°**

(euskalme)

MUGIKORTASUN ASTEA



Haur, gazte zein heldu ibili zen atzo patinetan Urbietan kale osoan zehar.

Bizkletek, patinei erreleboa

09:30etatik 12:00etara bizikleta ibilbidea egingo da Atsegindegina hasita. Ibilgailu hibrido eta elektrikoen erakusketa Zinkoenean da goizean zehar.

HERNANIAR asko eta asko animatu ziren atzo patinak jantzi eta herrian zehar irristaka ibiltzera, baita ere ipar martxa ezagutzera ikastaro batekin. Mugikortasun asteak ez du etenik gaur arte. Amaiera borobilduko da gaur bi ekintza nagusirekin. Goizeko 09:30e-

tatik 12:00etara, bizikleta ibilaldia egin ahal izango da Atsegindegitik aterata, eta bertan geratu nahi dutenek bide heziketa zirkuitoa izango dute aukeran.

Zinkoenean, berriz, ibilgailu hibrido eta elektrikoen erakusketa jarriko da, eta horie-

tako batzuk probatzeko aukera ere izango da 10:00etatik 14:00etara.

Familian eta lagunartean goiza ederra pasatzeko aukera paregabea eskaintzen du mugikortasun asteak, beti ere ingurugiroaren alde eta kutsaduraren aurka. **II**

KARABEL EGUNA



Haur, gazte zein heldu ibili zen atzo patinetan Urbietan kale osoan zehar.

Egun luze bezain ederra, auzotarrek

Karabeleko Egunak gero eta jende gehiago biltzen du egun osoko egitarau zabal batean eta gozatzeko aukera ez zuten galdu auzotarrek. Goizean hasi eta gauera arte denetarik egon zen: aurpegi margoketa, puzgarriak, buruhaundiak, tortila eta bizkotxo lehiaketa, haurrentzako animazioa, sagardo dastaketa, toka txapelketa, paella-jate herrikoia, bingoa, joku herrikoia, txokolatada, zunba, Nemus DJa, zezen-suzkoa, traka eta sua. Ondoren datorren urtera arte esan zieten festei. **II**

IRAGARKI MERKEAK

Ettxeko lanak egiteko langile bila gabiltza Hernanin. Deitu: 653 705 904

LOGIKALINE enpresak bi lanpostu eskaintzen ditu zuntz optikoa Gipuzkoan komertzializatzeko. Kontratu indefinidua, formazio sendoa eta lan-talde egonkorra. Interesatuak bidali C.V.a rrhh@logikaline.com helbidera

Esperientziadun andreak lan egingo luke adinekoak zaindu edota lagun egiten. Ordutegia: goiz eta arratsalde. Deitu: 654 122 548

Zinkoenean 16 m-ko garaje itxia salgai. Deitu: 607 349 163

Iñigo Royo Masajista. Masajea, naturopatia, osteopatia, kinesologia, reiki, homeopatia, akupuntura,... Deitu: 943 33 28 94 - 626 80 76 33 (Agustindarren plaza, 4)

Eskelak

Eskelak ilunabarreko 19:30ak arte jasoko dira. Izen abizenak, eskela jartzen duenak eskatu bezala errespetatuko dira eta funeraria bidez jasotzen den kasuetan, jaso bezala.



FELISA ALBERDI BELAMENDIA

(Jose Mari Aldasororen alarguna)

Herenegun hil zen, 88 urte zituela

Seme-alabak: Maria Isabel (+), Martin (+), Juanjo, eta Aingeru; bilobak: Unai, Arantxa, Ander (+), eta Katixa; birlobak, anai-arrebak, ezkon anai-arrebak, ilobak, lehengusuak eta gainerako senideak.



Familiak gonbidatzen zaituztete, **GAUR, IGANDEA, arratsaldeko ZAZPIETAN**, **HERNANIKO ORBEGOZO TANATORIOAN** egingo den **AZKEN AGURRERA**. Besterik gabe, mila esker.

Hernanin, 2018ko irailaren 23an



FELISA ALBERDI BELAMENDIA

(Jose Mari Aldasororen alarguna)

Ez zaizkigu inoiz ahaztuko zure hitzak, zure bizitza. Bizirik zaude oraindik, zeu zara gure bihotza.



ZURE ILOBAK ETA LEHENGUSUAK

Hernanin, 2018ko irailaren 23an



LUIS LEGARRETA DOMINGO

Gure ondotik joan zara, baina betiko izango zaitugu gure bihotzetan

ZURE KOINATU-KOINATAK

Miren eta Patxi (+), Esther eta Kandido (+), Nati eta Jose Luis (+)



Hernani-Ereñotzun, 2018ko irailaren 23an



LUIS LEGARRETA DOMINGO

Ez zaitugu inoiz ahaztuko, ez zaitugu inoiz galduko gure bihotz barrenean eramango zaitugu betiko.

KONPITTEKO LAGUNAK



Hernani-Ereñotzun, 2018ko irailaren 23an



LUIS LEGARRETA DOMINGO

Izan zarenagatik eta erakutsi diguzunagatik ez zaitugu inoiz ahaztuko

LEGARRETA FAMILIA



Hernani-Ereñotzun, 2018ko irailaren 23an



ESKERTZA

Juan Ledesma Sanchez

Orain egun gutxi hil zen - Goian bego -

Juanen senitartekoez eskerrak eman nahi dizkizuegu modu batera edo bestera gure ondoan izan zarenen guztiei eta baita elizkizunetara etorri zineten guztiei ere.

ESKERRIK ASKO GUZTIAGATIK



Hernanin 2018ko irailaren 23an